# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**5784**

534/2009 DEKRETUA, irailaren 29koa, Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onesten duena.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babesean idatzitako eta izapidetutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren Artezpideak behin betiko onetsi ziren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez eta otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren.

Artezpide horietan Lurraldearen Zatiko Planak idazteko esparruak ezartzen dira, eta horien artean Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionala dago.

Aipatutako Legearen 2. eta 11. artikuluekin bat etorriz, Lurraldearen Zatiko Planak derrigorrez egin behar diren Lurralde Antolamendurako tresnak dira. Horregatik, Artezpideen 22. kapituluko 7. paragrafoak, aplikazio-arauei buruzkoak adierazten du oso garrantzitsua dela Lurraldearen Zatiko Plana prestatzeari egiteari ekitea, ahalik eta arinen, aipatutako zuzentarauen osagarri diren hirigintza- eta lurralde-irizpideak emate aldera, hain zuzen, udal-esparruko planen garapen doituagoa ekarriko dutenak eta Lurraldearen Arloko Planak egitean lurralde-koherentzia handiagoa bermatzen dutenak.

2.– Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionalari dagokionez, prozesu hori 1992ko uztailaren 13an izenpetu zen Lankidetza Hitzarmenarekin hasi zen; hitzarmena orduko Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitektura Sailaren artean izenpetu zen.

Lurraldearen Zatiko Plan hau Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen 13. artikuluan aurreikusitako egite- eta izenpetze-prozesu luze baten emaitza da, dagozkion Aurrerapen, Hasierako, Behin Behineko eta Behin Betiko Onespen faseak izan dituena. Lurraldeko Herri Administrazioak (tokikoak, foru-aldundiak eta erkidegokoak) eta aipatutako Eremu Funtzionaleko gizartearen espektro zabalak izan ditu partaide.

3.– Planaren edukiak Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen 12. artikuluari erantzuten dio eta Lurraldearen Zatiko Planek izan behar dituzten

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**5784**

DECRETO 534/2009, de 29 de septiembre, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri).

1.– Las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco redactadas y tramitadas al amparo de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, fueron aprobadas definitivamente mediante el Decreto 28/1997, de 11 de febrero y publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco el 12 de febrero.

En dichas Directrices se establecen los ámbitos para la redacción de los Planes Territoriales Parciales entre los que se encuentra el Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri).

De conformidad con los artículos 2 y 11 de la referida Ley, los Planes Territoriales Parciales son instrumentos de Ordenación Territorial de necesaria elaboración. En este sentido, el apartado 7 del capítulo 22 de las Directrices, relativo a las Normas de Aplicación señala que se considera muy importante proceder a la formulación, lo antes posible, de los Planes Territoriales Parciales con objeto de aportar criterios urbanísticos y territoriales complementarios a las referidas Directrices que permitan un más ajustado desarrollo de los planes de ámbito municipal y que garanticen una mayor coherencia territorial en la formulación de los Planes Territoriales Sectoriales.

2.– En lo relativo al Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) este proceso se inició con la suscripción de un convenio de cooperación de fecha 13 de julio de 1992 entre los entonces denominados Departamento de Urbanismo y Vivienda del Gobierno Vasco y Departamento de Urbanismo y Arquitectura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El presente Plan Territorial Parcial se configura como el resultado de un dilatado proceso de formulación y tramitación previsto en el artículo 13 de la Ley de Ordenación del Territorio, con sus correspondientes fases de Avance, Aprobación Inicial, Provisional y Definitiva en el que han participado las distintas Administraciones Públicas territoriales (locales, foral y autonómica) así como un amplio espectro de la sociedad del citado Área Funcional.

3.– El contenido del Plan da respuesta al artículo 12 de la Ley de Ordenación del Territorio y recoge las determinaciones que deben contener los Planes

zehaztapenak jasotzen ditu. Planak hainbat neurri ezartzen ditu eta jarduteko proposamenak egiten ditu, helburu nagusi bezala Eremu Funtzionalaren baterako antolamendua lortzea dutenak.

4.– Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak honako udalerriak hartzen ditu: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga, baita Gipuzkoako eta Arabako (Aizkorri) eta Gipuzkoako eta Nafarroako (Enirio-Aralar mankomunitatea) partzuergo orokorrei dagozkien lursailak ere.

5.– Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak ondorengo helburu nagusiak ditu:

a) Eskualdeko baliabide naturalak babestu, hobetu eta baloratzea, baita bere paisaia- eta ingurumen-kalitatea ere, eskualdearen etorkizuneko garapen iraunkorrerako oinarrizko aktibotzat hartzen baitira.

b) Ezarpen-sistema koherentea lortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko hirien sisteman barne hartutakoa eta orekatutakoa, udalerrien eginkizun-osagarritasunean eta hiri- eta landa-esparruen arteko harreman mota berri batean oinarrituta, arloko biztanleen artean garapena eta kohesio ekonomiko eta soziala bultzatzeko helburuz.

c) Azpiegituren sistema garatzea Eremu Funtzionala kanpoko garapen-ardatzetan sartzea bermatzen duena eta ereduaren oinarrizko elementuen arteko eginkizun-harremanak hobetzen dituzten loturen bidez egituraketa indartzen duena.

6.– Lurraldearen Antolamenduaren Artezpideek zehaztutako lurralde-eremuaren barruan, plan honek, gainera, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sail ezberdinek zein Gipuzkoako Foru Aldundiko Sailek sustaturiko Lurraldearen Arloko Plan ezberdinak barne hartzen ditu. Ondorengo Lurraldearen Arloko Planak izan dira kontuan:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra.

– Gipuzkoako Errepideen Plana.

– EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Kantauri Isurialdea).

– EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

Territoriales Parciales. El Plan establece una serie de medidas y realiza propuestas de actuación que persiguen, como objetivo primordial, el conseguir una ordenación integral del Área Funcional.

4.– El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) comprende los términos municipales de Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain y Zumarraga, así como los terrenos correspondientes a las Parzonerías generales de Gipuzkoa-Araba (Aizkorri) y Gipuzkoa-Navarra (Mancomunidad de Enirio-Aralar).

5.– El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) tiene como objetivos principales:

a) Proteger, mejorar y poner en valor los recursos naturales comarcales y su calidad paisajística y ambiental, considerados como activos fundamentales para el futuro desarrollo sostenible de la comarca.

b) Lograr un sistema de asentamientos coherente, equilibrado e integrado en el sistema de ciudades de la Comunidad autónoma del País Vasco, basado en la complementariedad funcional de los municipios y en un nuevo tipo de relaciones entre los ámbitos urbano y rural, con objeto de favorecer el desarrollo y la cohesión económica y social entre los habitantes del área.

c) Desarrollar un sistema de infraestructuras que garantice la integración del Área Funcional en los ejes exteriores de desarrollo, y refuerce su vertebración mediante conexiones que mejoren las relaciones funcionales entre los elementos básicos del modelo.

6.– Dentro del marco territorial definido por las Directrices de Ordenación del Territorio, este Plan realiza, además, un ejercicio de integración de los diferentes Planes Territoriales Sectoriales promovidos tanto por los diferentes Departamentos de las Administración General de la Comunidad Autónoma como por los Departamentos de las Diputación Foral de Gipuzkoa. Se han tenido en cuenta los siguientes Planes Territoriales Sectoriales:

– Plan General de Carreteras del País Vasco.

– Plan de Carreteras de Gipuzkoa.

– Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertiente Cantábrica).

– Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.

– EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

7.– Planak bere zehaztapenak zehazten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 12.3 artikuluan ezarritako dokumentuetan.

8.– Zehazki, beste dokumentu batzuen artean Antolamendu Arauak hartzen ditu barne, Planak izaera arauemailea ematen dien proposamenen eta xedapenen multzoa jasotzen duten arauak, eta argitaratu ahal izateko I. eranskin gisa dekretu honekin batera doaz.

9.– Halaber, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlana doa Planarekin batera. Ingurumen-araudian ezarritakoa betez (apirilaren 28ko 9/2006 Legea, ingurumenean plan eta programa jakin batzuek duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, baita bere arauak garatzen dituen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duena), dekretu honi II. eranskina erantsi zaio, ingurumen-alderdiak Planean barne hartzeari dagokion erabakiari buruzko derrigorrezko adierazpenena.

10.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila da Planaren behin betiko onespena Gobernu Kontseiluan aurkezteko eskuduna dena Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen 13.9 artikuluan jasotakoaren arabera.

11.– Gobernu Kontseilua da Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onesteko eskuduna den organoa Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen 13.10 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horren arabera, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2009ko irailaren 29an egindako bilkuran erabaki eta onetsi ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onestea; plan horren Antolamendu Arauak dekretu honen I. eranskin gisa gehitu dira, eta II. eranskin gisa, berriz, planean ingurumen-alderdiak barne hartzearekin loturiko erabakiari buruzko adierazpena.

– Plan Territorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Protección y Ordenación del Litoral de la CAPV.

7.– El Plan concreta sus determinaciones en los documentos establecidos en el artículo 12.3 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

8.– En concreto, recoge entre otros documentos, las Normas de Ordenación, que contienen el conjunto de las disposiciones y propuestas a las que el Plan les confiere carácter normativo y que se acompañan como anexo I al presente Decreto para su publicación.

9.– Así mismo, al Plan se acompaña el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental. En cumplimiento de lo dispuesto en la normativa medioambiental (Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y en su desarrollo reglamentario a través del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental) se acompaña como anexo II a este Decreto la preceptiva declaración sobre la decisión adoptada en relación a la integración del Plan de los aspectos medioambientales.

10.– El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca es el competente para elevar al Consejo de Gobierno la aprobación definitiva del Plan en virtud de lo recogido en el artículo 13.9 de la Ley de Ordenación del Territorio.

11.– El Consejo de Gobierno es el órgano competente para aprobar definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) a tenor de lo establecido en el artículo 13.10 de la Ley de Ordenación del Territorio.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de septiembre de 2009,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Aprobar definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) cuyas Normas de Ordenación se incluyen como anexo I al presente Decreto y como anexo II, la declaración sobre la decisión adoptada en relación a la integración en el Plan de los aspectos medioambientales.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa***.– Lurraldearen arloko planak eta plan orokorra eta udalerriko plana egiteko eta onesteko prozeduretan, baita beren berrikuspenak eta aldaketak egitean ere, plan horiei dagozkien dokumentuak plan honetan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira Lurraldearen Zatiko Plan hau indarrean sartzeko unean hasierako onespena eman ez den kasuetan.

Edonola ere, Lurraldearen Zatiko Plan hau indarrean sartzeko orduan indarrean diren Lurraldearen Arloko Planak plan honetan ezarritakora egokituko dira, maiatzaren 31ko Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa izan ezik.

***Bigarrena***.– Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionalari dagozkion udalerrien hirigintza-dokumentuak, plan hau indarrean sartzeko unean hasiera batean onetsi ez diren Plan Orokorrak egiteko, berrikusteko edo aldatzeko prozesuetan daudenak, plan honetan jasotzen diren zehaztapenetara egokituko dira.

Edonola ere, indarrean den udal-hirigintzako plan orokorra plan honetan ezarritakora egokitu behar izango da indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita bi urteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko irailaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– En los procedimientos de formulación y aprobación de los planes territoriales sectoriales y del planeamiento general y de detalle municipal, así como de sus revisiones y modificaciones, en los que no se hubiere otorgado la aprobación inicial en el momento de la entrada en vigor de este Plan Territorial Parcial, los documentos correspondientes a tales planes deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en éste.

En todo caso, los Planes Territoriales Sectoriales vigentes a la entrada en vigor de este Plan Territorial Parcial se adaptarán a lo dispuesto en el mismo con excepción de lo previsto en la disposición adicional cuarta de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio.

***Segunda***.– Los documentos urbanísticos de los municipios pertenecientes al Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri) inmersos en procesos de formulación, revisión o modificación de Planes Generales que no hayan sido aprobados inicialmente en el momento de la entrada en vigor de este Plan, deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en éste.

En todo caso, el planeamiento urbanístico general municipal vigente deberá de adaptarse a lo dispuesto en este Plan en el plazo de dos años a contar desde su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al mes de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de septiembre de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA, IRAILAREN 29KO 534/2009 DEKRETUARENA

BEASAIN-ZUMARRAGAKO (GOIERRI) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

ANTOLAMENDU ARAUAK

I. KAPITULUA
LZP APLIKATZEAREN INGURUKO XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

Lurraldearen zatiko plan edo LZP honek Goierriko Eremu funtzionala (EE) antolatzea du xede, maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoaren (LAL), 12. artikuluko 1. puntuan ezarritako zehaztapenak garatuz, baita eremu horretan aplikagarri diren Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen edukiak ere, aipatutako legean aurreikusitakoaren arabera.

***2. artikulua.***– Aplikazio Eremua.

Goierriko Eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek berariaz horretarako mugatutako eremu osoan izango da aplikagarri indarrean sartzen denetik hasita, hain zuzen ere: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga eta Gipuzkoa-Araba (Aizkorri) eta Gipuzkoa-Nafarroa (Enirio-Aralar Mankomunitatea) partzuergo orokorretakoak.

***3. artikulua.***– Indarraldiaren Baldintzak.

1.– Plan honek iraupen mugagabea izango du, nahiz eta berorren programazioa denboraren araberakoa izan eta berrikusteko eta aldatzeko aukera izan.

2.– Lau urtean behin Goierriko Eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana idazteko eta horren jarraipena egiteko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sail eta Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek memoria bat egingo dute plana zenbateraino bete den eta horrek udaletako arloko eta hirigintzako lurralde-plangintzan zein eragin izan duen balioesteko, eta, hala badagokio behintzat, hautemandako bat ez etortzeak ekiditeko hartu beharreko neurriak definituko dituzte. Memoria hori Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari aurkeztuko zaio, berorren berri izan dezan.

ANEXO I AL DECRETO 534/2009, DE 29 DE SEPTIEMBRE.

PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL ÁREA FUNCIONAL BEASAIN-ZUMARRAGA (GOIERRI)

NORMAS DE ORDENACIÓN

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL REFERENTES A LA APLICACIÓN DEL PTP

***Artículo 1.***– Objeto.

El presente Plan Territorial Parcial, tiene por objeto la ordenación del Área Funcional Beasain - Zumarraga (Goierri), desarrollando las determinaciones establecidas en el punto 1 del artículo 12 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco (LOT), así como los contenidos de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) aplicables en dicho ámbito, de acuerdo con lo previsto en la referida Ley.

***Artículo 2.***– Ámbito de aplicación.

El Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri) será de aplicación en la totalidad del ámbito delimitado al efecto por las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el cual comprende los veintidós términos municipales del Área Funcional, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain y Zumarraga, así como los terrenos correspondientes a las Parzonerías generales de Gipuzkoa-Araba (Aizkorri) y Gipuzkoa-Navarra (Mancomunidad de Enirio-Aralar).

***Artículo 3.***– Condiciones de vigencia.

1.– El presente plan tiene una vigencia indefinida, sin perjuicio de su programación temporal y de su revisión o modificación.

2.– Cada cuatro años, los Departamentos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Gipuzkoa competentes en la redacción y seguimiento del Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri) elaborarán una memoria que valorará el cumplimiento del mismo y su incidencia en el planeamiento territorial sectorial y urbanístico municipal y definirá las medidas a adoptar para evitar los desajustes que, en su caso, se detecten. Dicha memoria se elevará a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para su conocimiento.

3.– 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak eta EAEko lurraldea antolatzen duenak, bere 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldia eten dezake, beraren berrikuspena egiteko xedearekin.

***4. artikulua.***– Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren Aldaketa eta Berrikuspena.

1.– Lurraldearen Zatiko Plan honetan barne hartutako edukia aldatu ahal izango da beraren berrikuspena egitean edo plana osatzen duten elementu bat edo batzuk aldatzean.

2.– Aldaketatzat joko da dokumentazioa edo zehaztapenak alteratzea edo gehitzea, betiere horrek ez badakar berekin plana bere osotasunean berraztertzea, proposamenean oro har izandako eragina puntuala eta isolatua baino ez delako.

Aldaketa horiek interes orokorreko arrazoiak izan behar dituzte oinarri eta ezinbestekoa izango da horien edukia eta irismena zehatz-mehatz deskribatzea, baita horiek berariaz justifikatzea ere. Hori dela eta, behar adinako xehetasunez ebaluatuko dira horiek Goierriko Eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren aurreikuspenetan duten eragina, biztanleriari, enpleguari, gizarte-ekipamenduari eta azpiegiturei dagokienez.

Aldaketa guztiek zerikusia izango dute horiek justifikatzeko arrazoiekin eta espedientean ezingo dira barne hartu arrazoi horrekin zerikusirik ez duten planaren aldaketak edo egindako deskribapen eta justifikazioetan berariaz aipatzen ez direnak.

3.– 4/1990 Legeak, EAEko lurraldea antolatzen duenak, bere 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planean egiten diren aldaketak, berrikuspen orokor baten ondorioz egin ez direnak edo plana nabarmenki aldatzen ez dutenak, 206/2003 Dekretuan, irailaren 9koan eta Lurraldearen Antolamendurako Arauetan, Lurraldearen Zatiko Planetan eta Lurraldearen Arloko Planetan funtsezkoak ez diren aldaketak egiteko prozedura onartzen duenean, xedatutakoari jarraituz egingo dira.

4.– Goierriko Eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana berrikusteko egin daitezkeen ekimenak (legezkotasunaren inguruko arrazoiak —lege-aldaketak, lurraldearen antolamendua eta abar—nahiz aukera eta/edo premien araberakoak) edozein direlarik ere, ondoren aipatutako kasuetan berrikusiko da:

a) Eremu funtzionaleko biztanleria plan honetan egindako gehienezko aurreikuspenak baino % 6 handiagoa denean.

b) Planifikatutako etxebizitza berrien % 75i eman zaizkienean eraikitzeko baimenak.

3.– De conformidad con lo previsto en el artículo 3 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de ordenación del Territorio del País Vasco, el Gobierno Vasco podrá acordar la suspensión de la vigencia del Plan Territorial Parcial a fin de proceder a su revisión.

***Artículo 4.***– Modificación y Revisión del Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri).

1.– La alteración del contenido de este Plan Territorial Parcial podrá llevarse a cabo mediante su revisión o a través de la modificación de alguno o algunos de los elementos que lo constituyen.

2.– Se entiende por modificación toda alteración o adición en la documentación o en las determinaciones del plan que no suponga una reconsideración global del mismo, por no afectar, salvo de modo puntual y aislado, al conjunto de la propuesta.

Las modificaciones deberán fundamentarse en motivos de interés general y exigirán una descripción pormenorizada de su contenido y alcance, así como una justificación expresa de las mismas. En ese sentido, se evaluarán sus efectos sobre las previsiones del Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri) en lo referente a población, empleo, equipamiento comunitario e infraestructuras.

Todas las modificaciones guardarán relación con el motivo que las justifica, sin que puedan incluirse en el expediente alteraciones del plan no relacionadas con dicho motivo, o que no se mencionen de forma expresa en las descripciones y justificaciones realizadas.

3.– De conformidad con lo previsto en el artículo 14 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, las modificaciones del Plan Territorial Parcial que no supongan revisión general o modificación sustancial de tal instrumento tendrán lugar mediante el procedimiento previsto en el Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación del Territorio, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales Sectoriales.

4.– Con independencia de las iniciativas de revisión del Plan Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri) que se pudieran adoptar, tanto por razones de legalidad - cambios legislativos, ordenación territorial, etc. - como de oportunidad y/o necesidad, se procederá a la citada revisión en los siguientes casos:

a) Siempre que la población del Área Funcional supere en un 6% las previsiones máximas proyectadas en este Plan.

b) En el momento en que se haya procedido a la concesión de licencias de edificación para el 75% de las nuevas viviendas planificadas.

c) Ekonomia-jarduera berriak ezartzeko aurreikusitako lurzoruaren % 75 baino gehiago okupatu denean.

d) Behin betiko onartu zenetik hamasei urte igaro direnean.

e) Oro har, sortutako egoerek Lurraldearen Zatiko Planak bere egindako oinarrizko magnitudeen inguruko hipotesiak (biztanleriaren, enplegu-dinamikaren edo etxebizitzen merkatuaren ingurukoak) aldatzen dituztenean eta horiek ezarritako antolamendurako irizpide orokorrak aldatzera behartzen dutenean.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aldaketak edo berrikuspenak zuzenean eremu funtzionalean eragiten duen lurralde-ereduaren aldaketa dakartenean berekin.

g) Edozein kasutan, Goierriko Eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana indarrean sartu eta handik zortzi urtera berrikustea egoki litzatekeen aztertuko da.

5.– 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak eta EAEko lurraldea antolatzen duenak, bere 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da Lurraldearen Zatiko Planaren berrikuspena.

***5. artikulua.***– LZP-ren dokumentazioa eta interpretazioa.

1.– LZPak ondorengo agiriak ditu:

A) Memoria.

B) Antolamendu Arauak.

C) Antolamendu Planoak.

D) Gauzatzeko Programa.

E) Ekonomia eta Finantza Azterketa.

F) Udal Plangintzaren gaineko Eraginen Agiri Osagarria.

2.– LZPren edukia berau osatzen duten agirietan barne hartutako zehaztapenek osatzen dute, nahiz eta antolamendu-arauei eta antolamendu-planoek duten bakarrik arautzeko ahalmena berariaz; horrenbestez, kontraesanik aurkituz gero, azken bietan adierazitakoa hartuko da kontuan.

Dokumentazio grafikoaren eta idatzizkoaren arteko kontraesan edo bat ez etortzeren bat izango balitz, idatzizkoa izango litzateke nagusi. Kontraesana edo bat ez etortzea idatzizkoen eta zenbakizkoen artekoa balitz, idatzizkoak izango lirateke nagusi.

3.– 157/2008 Dekretuko 3.1.s) artikuluari jarraiki Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari esleitu zaio Goierriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planeko zehaztapenak interpretatzeko ahalmena.

c) En el momento en que se haya procedido a la ocupación en más de un 75% del suelo previsto para la implantación de nuevas actividades económicas.

d) Cuando hayan transcurrido dieciséis años desde su aprobación definitiva.

e) En general, cuando circunstancias sobrevenidas alteren las hipótesis adoptadas en el Plan Territorial Parcial en cuanto a las magnitudes básicas de población, dinámica de empleo o mercado de vivienda, de forma que obliguen a modificar los criterios generales de ordenación establecida.

f) Cuando la modificación o revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco supongan una transformación del Modelo Territorial que afecta directamente al Área Funcional.

g) En cualquier caso, a los ocho años de vigencia del Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri) se verificará la oportunidad de proceder a su revisión.

5.– La revisión del Plan Territorial Parcial deberá de sujetarse al procedimiento previsto en el artículo 13 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, para su formulación y aprobación.

***Artículo 5.***– Documentación del PTP e interpretación del mismo.

1.– El PTP consta de los siguientes documentos:

A) Memoria.

B) Normas de Ordenación.

C) Planos de Ordenación y de Información.

D) Programa de Ejecución.

E) Estudio Económico-Financiero.

F) Documento Complementario de Afecciones al Planeamiento Municipal.

2.– El contenido del PTP está configurado por el conjunto de determinaciones contenidas en los documentos del mismo, si bien, son las Normas de Ordenación y los Planos de Ordenación los que tienen de manera específica ese carácter normativo, por lo que en caso de contradicción entre ellos serán estos dos últimos los que prevalezcan.

En el supuesto de producirse alguna divergencia o contradicción entre la documentación gráfica y la escrita, prevalecerá ésta última. Si la divergencia o contradicción se produjera entre las palabras escritas y los números, prevalecerán las primeras.

3.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3.1.s) del Decreto 157/2008, de 9 de septiembre, se atribuye a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco la facultad de interpretación de las determinaciones del Plan Territorial Parcial del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri).

II. KAPITULUA
ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK:
KONTZEPTU ETA ENUNTZIATU OROKORRAK

***6. artikulua.***– Zehaztapen orokorrak sistematizatzea.

1.– Goierriko Eremu Funtzionaleko (EF) Lurraldearen Arloko Plana (LAP) antolamendurako marko orokorra eta berariazko erreferentzia da. Berau lantzeko orduan, ondoren adierazitako kontzeptu-multzoak bereizi dira:

a) Antolamendurako irizpide orokorrak.

b) Antolamendurako zehaztapenak, Lurralde Ereduan islatzen direnak.

c) Lurralde-eredua osatzera zuzendutako Esku-hartzeak, beraren garapena eta eraginkortasuna lortzeko funtsezkoak direnak.

***7. artikulua.***– Antolamendurako Helburu Orokorrak.

1.– Goierriko Eremu funtzionalaren antolamenduak ondorengoak ditu xede, giza habitata eta ingurune naturala zentzuz antolatzeko azken helburua gogoan:

a) Eskualdeko natur baliabideak eta horien paisaia- eta ingurumen-kalitatea zaintzea, hobetzea eta balioz hornitzea, horiek funtsezko aktibo baitira eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarrirako.

b) EAEko hirien sistemarekiko koherentea, orekatua eta integratua den asentamendu-sistema bat lortzea, udalerriek betetzen dituzten funtzio desberdinen osagarritasuna eta hiri-esparruaren eta landa-esparruaren arteko erlazio mota berria bat oinarrian hartuta. Hartara, ekonomiaren eta gizartearen garapena eta kohesioa indartuko da eremuko biztanleen artean.

c) Azpiegitura-sistema egokia garatzea, Goierriko eremu funtzionala kanpoko garapen-ardatzetan integratuko dela ziurtatzeko, inguruko eremu funtzionalekiko loturak garatzeko eta egituraketa indartzeko (ereduko oinarrizko elementuen arteko erlazio funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bitartez).

2.– Lurralde-garapenerako esku-hartzeak helburu horien araberakoak izango dira.

***8. artikulua.***– Lurralde Eredua.

1.– Lurralde-eredua LZPko lurraldearen antolamendurako zehaztapen guztiek definitzen dute. Izan ere, horiek ezartzen dituzte hirigintza-plangintzan aplikatuko diren printzipioak, irizpideak, orientazioak eta antolamendu-proposamenak edo –soluzioak, edo, hala badagokio, lurralde, eremu funtzionalean gara-

CAPÍTULO II
BASES Y CONTENIDOS SUSTANCIALES DE LA ORDENACIÓN:
CONCEPTOS Y ENUNCIADOS GENERALES

***Artículo 6.***– Sistematización de las determinaciones generales.

1.– El Plan Territorial Parcial (PTP) del Área Funcional (AF) Beasain-Zumarraga (Goierri) constituye un marco general y una referencia de desarrollo, distinguiendo en su formulación los siguientes grupos de conceptos:

a) Objetivos Generales de ordenación.

b) Determinaciones de ordenación que se plasman en el Modelo Territorial.

c) Intervenciones orientadas a la consecución del Modelo Territorial, que fundamentan la estrategia de su desarrollo y su operatividad.

***Artículo 7.***– Objetivos generales de ordenación.

1.– La ordenación del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri), con el fin último de organizar racionalmente el hábitat humano y el medio natural, tiene por objeto:

a) Proteger, mejorar y poner en valor los recursos naturales comarcales y su calidad paisajística y ambiental, considerados como activos fundamentales para el futuro desarrollo sostenible de la comarca.

b) Lograr un sistema de asentamientos coherente, equilibrado e integrado en el sistema de ciudades de la CAPV, basado en la complementariedad funcional de los municipios y en un nuevo tipo de relaciones entre los ámbitos urbano y rural, con objeto de favorecer el desarrollo y la cohesión económica y social entre los habitantes del Área.

c) Desarrollar un sistema de infraestructuras que garantice la integración del Área Funcional en los ejes exteriores de desarrollo, y refuerce su vertebración mediante conexiones que mejoren las relaciones funcionales entre los elementos básicos del Modelo.

2.– Las intervenciones de desarrollo territorial y urbanístico en el Área Funcional deberán ajustarse, en cualquier caso a dichos objetivos.

***Artículo 8.***– El Modelo Territorial.

1.– El Modelo Territorial queda definido por el conjunto de determinaciones del PTP que establecen los principios, criterios, orientaciones y propuestas o soluciones de ordenación a aplicar en el planeamiento urbanístico, así como, en su caso, en la regulación de las actuaciones de naturaleza territorial, sectorial y

tzen diren sektore eta hirigintzako jardueren arautzean aplikatuko direnak, LZPren eskumen-esparruaren barruan betiere.

Lurralde-ereduaren definizioa bat dator planaren memorian adierazitako helburu demografiko, sozioekonomiko eta ingurumenekoekin, eta iraunkortasunaren eta orekaren irizpideak hartu dira kontuan, 2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren esparruan.

2.– Lurralde-ereduak ondorengo kontzeptu multzo nagusiak bereizten ditu bere antolamendu-edukiak aurkezteko:

– Ingurune fisikoa.

– Harremanetarako sistemaren eta zerbitzu-sistemaren azpiegiturak.

– Asentamendu-sistema, zuzkidurakoa barne.

– Hiri-garapenaren esku-hartze estrategikoak eta plangintzarako irizpide orokorrak.

3.– Lurralde-ereduaren elementurik esanguratsuenek, lurraldearen antolamendu funtzionalean eta espazioarenean funtsezkoak direnek, zehazten dute lurraldearen egitura orokorra, eremu funtzionala antolatzen duena eta LZParen antolamendu-proposamenaren funtsezko oinarri dena.

4.– Lurralde-eredua ezinbesteko erreferentzia izango da lurraldea antolatzeko eta bertan esku hartzeko soluzio zehatzak ezartzeko, zuzenean nahiz lurralde- eta sektoreko edo udal-mailako plangintzen eta plangintza berezien bidez eta kasuan kasu araudi honetan adierazitako lotura-izaerarekin eta –mailarekin.

***9. artikulua.***– Lurralde Egitura.

1.– Eremu funtzionaleko lurralde-egitura zehazteko, ereduaren barruan LZPko helburuak lortzeko zeresan edo ahalmen handia duten antolamendu-osagaiak jarraituko dira, hain zuzen ere:

• Ingurune fisikoari dagozkionak:

– Natur interesa, interes paisajistikoa, zientziaren eta kulturaren ingurukoa, nekazaritza-interesa eta interes hidrologikoa dutelako interes berezikoak diren eremuak, ingurune fisikoaren eta beraren antolamenduaren erreferentzia gisa.

• Asentamenduei dagozkienak:

– Gaur egungo herriguneak eta horiei LZP honen lurralde-ereduan egozten zaien karakterizazioa eta funtzioa, ekonomia-jardueretarako asentamendu nagusiak eta ekipamendu-sistemako udalaz gaindiko elementuak barne hartua.

– Asentamendu berrien proposamenak, bizitegitarako asentameduak zein ekonomia-jardueretarakoak, LZP honen irizpideen eta helburuen arabera, eskualdean

urbanística, en el Área Funcional, dentro del marco competencial de aquel documento.

La definición del Modelo Territorial concuerda con los objetivos demográficos, socio-económicos y ambientales expuestos en la memoria del Plan, bajo criterios de sostenibilidad y equilibrio, en el marco de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible (2002-2020).

2.– El Modelo Territorial organiza sus contenidos de ordenación en los siguientes grupos de conceptos principales:

– Medio Físico.

– Infraestructuras del Sistema Relacional y de los Servicios.

– Sistema de Asentamientos, incluido el Dotacional.

– Intervenciones Estratégicas de Desarrollo urbano y Criterios de Planificación.

3.– Las componentes más significativas del Modelo Territorial que fundamentan la organización funcional-espacial del territorio, determinan la Estructura Territorial, complejo vertebrador del Área Funcional y núcleo de la propuesta ordenadora del PTP.

4.– El Modelo Territorial constituye la referencia preferente, y en su caso obligada, para desarrollar - bien directamente o bien mediante el planeamiento sectorial, municipal y especial - las soluciones de ordenación y de intervención sobre el territorio, con el carácter y grado de vinculación contenidos en la presente normativa.

***Artículo 9.***– La Estructura Territorial.

1.– La Estructura Territorial del Área Funcional queda establecida en base a aquellas componentes de ordenación del Modelo que representan o tienen capacidad para jugar un papel determinante en la consecución de los objetivos del PTP, a saber:

• Del Medio Físico:

– Los ámbitos de especial relevancia por su interés natural, paisajístico, científico-cultural, agrícola e hidrológico como elementos referenciales del Medio Físico y de la ordenación del mismo.

• De los Asentamientos:

– Los núcleos urbanos existentes y la caracterización y el papel de los mismos establecidos en el Modelo Territorial de este PTP, incluidos los principales asentamientos de actividades económicas y los elementos de interés supramunicipal del sistema de equipamientos.

– Las propuestas de nuevos asentamientos, tanto residenciales como de actividades económicas, consideradas como intervenciones estratégicas por

duten eraginagatik edo dagokien mailagatik esku-hartze estrategikotzat jotzen direnak.

– LZP honen lurralde-ereduan barne hartutako udalaz gaindiko hiri-izaerako edo natur inguruneko ekipamenduak.

• Azpiegiturei dagozkienak:

– Egungo errepide-sarea LZP honetan emandako kategorizazioarekin, eta aipatutako planean barne hartutako udalaz gaindiko proposamenak.

– LZP honetan barne hartutako trenbide-sarea, gaur egungoa eta proposatu dena, bidaiarien eta salgaien geltokiak eta truke-zentroak eta geltoki nagusien inguruak aldatzeko eta berritzeko proposamenak.

– Zerbitzuen Azpiegituren Sistemako elementurik garrantzitsuenak edo lurraldean eragin handien dutenak, hala nola urtegiak, araztegiak, zabortegiak, elektrizitatea eraldatzeko estazio nagusiak, eta antzeko gehiago.

2.– Lurralde-eredua definitzen duten Goierriko eremu funtzionaleko LZPko zehaztapenak eta aipatutako ereduaren osagaiei buruzkoak, indar lotesle handien duten antolamendu-xedeak dira, bertan adierazitakoari jarraiki, eta horrela barne hartuko dira aipatutako osagaiak eragiten dituzten garapen-plangintzan eta gainerako jardueretan.

***10. artikulua.***– Esku hartzeak oro har.

1.– Proposatutako lurralde-eredua lortzeko helburuarekin, LZP honetan lurralde-mailan eragina duten esku hartzeko hainbat proposamen edo ekintza berariazko adierazten dira. Helburu desberdinekin aurkezten dira:

– antolamendu-zehaztapenei dagozkien esku hartzeko mailak edo lehentasunak zehaztea.

– herri-administrazioaren lurralde-politikaren eta sektorekoaren oinarri gisa erabiltzea.

– lurzoruaren politika orientatzea, bizitegi, ekonomia-jarduera eta zuzkidurarako asentamenduei dagokienez.

– kasuan kasu eska daitekeen estrategia eta programazioa prestatzea, bai eta, hala badagokio, planen koordinazioa egitea ere.

– lurralde-ereduaren barruan eragiketa bereziak edo osagarriak barne hartzen dituzten zehaztapenak egitea.

2.– Lurralde-egiturako esparruen edo elementuen gainean ereduaren oinarrizko zehaztapenak garatzeko edo gauzatzeko egiten diren esku hartzeko proposamenak esku-hartze estrategikoak dira.

LZP honek barne hartzen dituen gainerako esku hartzeko proposamenak lehentasunezko esku-hartzeak dira.

su incidencia o rango comarcal de acuerdo con los criterios y fines de este PTP.

– Los equipamientos de carácter urbano o en el medio natural de rango supramunicipal incluidos en el Modelo Territorial de este PTP.

• De las Infraestructuras:

– La Red Viaria existente con la categorización adoptada por este PTP, así como las propuestas de carácter supramunicipal contenidas en el mismo.

– La Red Ferroviaria, tanto existente como propuesta, adoptada por este PTP, incluso las estaciones e intercambiadores de viajeros y mercancías y las propuestas de transformación y regeneración de los entornos de las estaciones principales.

– Los elementos más notables o con mayor incidencia territorial del Sistema de Infraestructuras de Servicios, tales como embalses, estaciones de depuración, vertederos, principales estaciones de transformación eléctrica, y otros similares.

2.– Las determinaciones del PTP del Área Funcional del Goierri que definen la Estructura Territorial, así como las referidas a las componentes de la misma, constituyen las disposiciones de ordenación de mayor fuerza vinculante, de acuerdo con los términos de las mismas, debiendo recogerse con tal carácter en el planeamiento de desarrollo y demás actuaciones que afecten a dichas componentes.

***Artículo 10.***– De las intervenciones en general.

1.– Para la consecución del Modelo Territorial se define, desde este PTP, una serie de propuestas de intervención o acciones específicas de incidencia territorial, dirigidas a:

– Establecer los rangos o prioridades de actuación referentes a las determinaciones de ordenación.

– Fundamentar la política territorial y sectorial de la administración pública.

– Orientar la política de suelo referente a los asentamientos residenciales, de actividades económicas y dotacionales.

– Preparar la estrategia y la programación del planeamiento de desarrollo exigible, incluso la coordinación de los planes, en su caso.

– Llevar a cabo aquellas determinaciones de ordenación del Modelo Territorial que precisen de operaciones especiales o complementarias.

2.– Las propuestas de intervención de alcance comarcal sobre ámbitos o elementos de la Estructura Territorial orientadas a desarrollar o llevar a cabo las determinaciones sustanciales del Modelo se consideran Intervenciones Estratégicas.

El resto de las propuestas de intervención de este PTP tienen el carácter de Intervenciones Preferentes.

***11. artikulua.***– Eremu Funtzionala Antolatzeko Kategoriak.

Plan honetan xedatutakoa betetzeko, eremu funtzionaleko lurralde-eredua antolatzeko ondoren adierazitako kategoria multzoak bereizi dira (dagozkien definizioak barne hartu dira bakoitzaren epigrafean):

A) Ingurune fisikoaren antolamendua.

A.1.– Garrantzi handiagoko eremuak.

• Babestu beharreko eremuak:

– Interes naturaleko eremuak.

– Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak.

– Nekazaritza- edo/eta ingurumen-intereseko eremuak.

– Interes hidrologikoko eremuak.

• Hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak:

– Ekosistemak hobetzeko eremuak.

– Baso-kontserbazioko eremuak.

– Erabiltzen ez diren meatze, harrobi eta zabortegiak.

• Korridore ekologikoen sarea.

A.2.– Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra.

A.2.1.– Kategoria orokorrak.

– Babes berezia.

– Ingurumena hobetzea.

– Basoak.

– Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala.

– Mendietako larreak.

– Lur gaineko uren babesa.

A.2.2.– Gainjarritako baldintzatzaileak.

– Akuiferoen urrakortasuna.

– Higa daitezkeen eremuak.

– Urpean gera daitezkeen eremuak.

– Naturgune babestuak eta Natura 2000 Sarea.

B) Oinarrizko azpiegituren sistemaren eredua.

B.1.– Bide garraio eta komunikazioen sarea.

B.1.1.– Errepide-sarea.

– Kanpoko sarbide-sare orokorra.

– Tokiko sarbide-sare nagusia.

– Lurraldeko sarbide-sare osagarria.

– Tokiko sarbide-sare osagarria.

– Landaguneetako sarbide-sarea.

B.1.2.– Ibilbideen ingurumen-sarea.

| Total Componente 2 / Guztira 2. osagaia | | | |

| Componente 3. VARIACION DE LA ESTRUCTURA FAMILIAR<br>3.osagaia. ALDAKETA FAMILI EGITURAN | |
|---|---|
| Necesidad de Nuevas Viviendas PB/TMF(n) – VOB =<br>Etxebizitza Berrien Beharizana PO / FBT(n) – OEO = | |
| Total Componente 3 / Guztira 3. osagaia | |

| Componente 4. CORRECCION DE LA RIGIDEZ DE LA OFERTA<br>4.osagaia.ESKAINTZAREN ZURRUNTASUNAREN ZUZENKETA | | |
|---|---|---|
| CR / ZK = | (VOB + C2 + C3) CR / (OEO + O2 + O3) ZK = | |
| Total Componente 4 / Guztira 4. osagaia | | |

| Componente 5. SEGUNDA RESIDENCIA<br>5.osagaia. BIGARREN EGOITZA | | |
|---|---|---|
| CSR/BEK= | C2 + C3 + C4 / O2 + O3 + O4 = | |
| (C2 + C3 + C4 ) (CSR - 1) 0,5 / (O2 + O3 + O4) (BEK-1) 0,5 = | | |
| Total Componente 5 / Guztira 5. osagaia | | |

| NUMERO MAXIMO DE VIVIENDAS A OFERTAR POR EL PLANEAMIENTO<br>PLANGINTZAK ESKAINTZAN JARRI BEHARREKO GEHIENEZKO ETXEBIZITZA-KOPURUA | | |
|---|---|---|
| C1 + C2 + C3 + C4 + C5 / O1 + O2 + O3 + O4 + O5 = | TOTAL<br>TOTAL | |

*LEYENDA*

*VOB: Viviendas Ocupadas en el año Base de la proyección*

*OEO: Okupatutako Etxebizitzak proiekzioaren oinarrizko urtean.*

*PB: Población en el año Base de la Proyección*

*PO: Populazioa proiekzioaren Oinarrizko urtean*

*PH: Población en el año horizonte de la proyección*

*PH: Populazioa proiekzioaren Horizonte-urtean*

*TFM(n): Tamaño medio Familiar en el año (n)*

*FBT (n): familiaren Batezbesteko Tamaina (n) urtean*

*TAC: Tasa Anual de Crecimiento demográfico*

*UHT: Urteko Hazkunde demografikoaren Tasa*

*CD:Crecimiento Demográfico*

*HD: Hazkunde Demografikoa*

*CR:Coeficiente de Rigidez*

*ZK: Zurruntasun-Koefizientea*

*CSR: Coeficiente de 2.ª Residencia*

*BEK: Bigarren Egoitzako Koefizientea*

HIRUGARREN SEKZIOA
EKONOMIA JARDUEREN ASENTAMENDUAK

***39. artikulua.***– Ekonomia Jardueretarako Lurzorua Antolatzeko Irizpideak eta Helburu Orokorrak.

1.– Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintza egitea, eskaintza zabala, eskuragarria eta eskualdeak gaur egun zein etorkizunean edukiko duen produkzio-sistemaren beharretara egokitua, funtsezkoa eta ezinbestekoa da enpresa-ekimen endogenoak mantentzeko eta berriak erakartzeko.

2.– Industria-jardueren garapena eta, eskuarki, hirugarren sektorekoena (bereziki, zerbitzuen sektorekoena) bateragarri egitea, azken horien proportzioa areagotuz eta xede horretarako egokiak diren espazioak hautatuz.

3.– Orain arte eraiki eta kalifikatutako eremu gehienei eutsiko zaie. Horretan salbuespen izango dira hiri-birkualifikaziorako behar direnak, birmoldaketa estrategikoetarako beharrezko direnak eta puntualak eta tamaina txikikoak direnak, nabarmen badira antolamendu osoaren kalterako.

4.– Oro har, lurralde-ereduaren ondorio diren asentamenduak bertan bizi den biztanleriaren eta bertako enpleguen arteko oreka erlatibora bideratuko dira, eskualdearen edo azpieskualdearen maila erreferentzia hartuta.

5.– Ekonomia-jarduerak ezartzeko eragiketak, gainera, ondorengo irizpideei jarraiki burutuko dira:

a) Asentamenduen garapena lurraldearen egitura fisikoa eta edukiera-ahalmena aintzat hartuta egingo da.

Irizpide hori jarraituko da, batez ere, ekonomia-jardueretarako eremuak udalerrien lotura funtzionala egiteko funtsezkoak direnean, nagusiki Beasain-Zumarraga korridorean.

b) Eremu berriak aukeratzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: lurraldearen egitura, komunikazio eta garraiorako oinarrizko sareekiko eta oinarrizko azpiegiturekiko harremanak, esparruaren harrera-ahalmena, gainerako asentamenduekiko erlazioa, espazioaren asetasun-maila eta ingurumen-eraginak. Gainera, lehentasun, tolerantzia eta bazterketako espazioak adieraziko dira, aipatutako horien arabera.

c) Asentamendu berrietan tamaina handi eta ertaineko eragiketa gutxiago egiteari emango zaio lehentasuna esku-hartze txiki baina ugarien gainetik, batez ere horiek dimentsio txikiagoko lur alubialetan eragiten badute, begi-bistako eragina izaten baitute ingurune naturalean.

SECCIÓN TERCERA
DE LOS ASENTAMIENTOS DE LAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS

***Artículo 39.***– Criterios y Objetivos Generales de la Ordenación del Suelo destinado a Actividades Económicas.

1.– Proporcionar una oferta de suelo para actividades económicas amplia, accesible y adaptada a las necesidades del sistema productivo de la comarca, como medio de mantenimiento de las iniciativas empresariales de la misma y atracción razonable de otras nuevas.

2.– Compaginar el desarrollo de las actividades industriales con las terciarias en general, y las del sector servicios en particular, aumentando la proporción relativa de estas últimas y seleccionando los espacios que convienen a tal fin.

3.– Mantener la mayoría de las áreas edificadas y las calificadas existentes, salvo las que sean necesarias para la recualificación urbana, las destinadas a reconversiones estratégicas y las puntuales y de pequeña entidad que fuesen claramente perjudiciales para la ordenación global.

4.– Orientar, en conjunto, los asentamientos resultantes del Modelo Territorial hacia un horizonte de relativo equilibrio entre la población residente y los empleos existentes, tanto a nivel comarcal como subcomarcal.

5.– Las operaciones de implantación de las actividades económicas, se efectuarán, además, en base a los siguientes criterios:

a) El desarrollo de los asentamientos se llevará a cabo de manera concordante con la estructura física del territorio y su capacidad de acogida.

Este criterio se aplicará particularmente en los ámbitos donde las áreas de actividades económicas juegan un papel de conector funcional entre los municipios, principalmente en el corredor Beasain-Zumarraga.

b) La selección de nuevas áreas debe realizarse teniendo en cuenta, además de los criterios señalados en el punto anterior, su relación con las redes de infraestructuras, la relación con los demás asentamientos, el grado de saturación espacial y los impactos medioambientales, señalando los espacios de preferencia, tolerancia y exclusión, según las referidas circunstancias.

c) En los nuevos asentamientos se dará preferencia a la ejecución de un menor número de operaciones de tamaño grande o mediano contra un número de pequeñas intervenciones, sobre todo si éstas afectan a terrenos aluviales de menor dimensión.

d) Haranen hondoetako zerrenda estu eta lauetako esku-hartzeak deskalifikatu behar dira, batez ere erriberakoak, horietan esku-hartzeak galarazi behar dira. Gisa horretan hiri-garapeneko baztertze-zerrenda izango dira.

e) Izaera poluitzailea edo narriatzailea duten erabilera bereziak, besteak beste, aire zabaleko txatar-biltegiak, automobilen kanposantuak, hormigoizko plantak eta antzeko eragineko beste hainbat, ezinbestean arautu beharko dira udal -plangintzetan, arloko araudiari jarraiki eta akuiferoen, ingurune naturalaren eta hiri- eta landa-paisaiaren babesaren inguruko irizpideak aintzat hartuz.

f) Ekonomia-jardueren asentamenduak (horiek industrialak nahiz beste motaren batekoak izan) harremanetarako egituran integratutako proiektuen arabera egingo dira. Gainera, errodadura, aparkaleku, oinezko eta txirrindularientzako ibilbide, espaloi, zuhaizti eta ibaien ertzetako espazio funtzionalak definituko dira eta zaindu egingo dira diseinuaren eta egindako eraikuntza eta urbanizazioen kalitatea, baita horiek ingurumenarekin duten erlazioa ere.

g) Ekonomia-jardueretarako plangintza-eremuek eta –unitateek gutxieneko dimentsionatzea izan beharko dute eta, ahal dela, lehendik dauden garapenen jarraian kokatuko dira, gisa horretan hazkunde sakabanatua saihestuko baita.

h) Irizpide orokor gisa, garapen iraunkorraren eta lurzoruaren erabilera hobearen printzipioak aintzat hartuta, plangintzak eraikuntza-betetzea aurreikusiko du, betiere LZP hau garatzeko antolamenduen xede zehatzekin bateragarria bada edo produkzio-jarduerak edo beste jarduera batzuk beste mota bateko eraikuntzak eskatzen ez badituzte.

***40. artikulua.***– Ekonomia Jardueretarako Lurzorua Kokatzeko Irizpideak.

1.– Jasandako industria-garapenaren intentsitatearen eta/edo ereduak aurreikusitako garapen-esparruei egozten dien potentzialtasunaren arabera, LZPak ondorengo kategorien arabera bereizten ditu eremu funtzionaleko udalerriak:

– Lehentasunezko intereseko udalerriak.

– Hazkunde neurritsuko udalerriak.

– Garapen baxuko udalerriak.

2.– Lehentasunezko intereseko udalerriak komunikazioko korridore nagusietan kokatutakoak, industria-ezarpen handienak jasaten dituztenak eta/edo garapenerako potentzialtasun nabarmenak dituztenak dira:

– Zaldibia, Ordizia, Beasain, Lazkao, Olaberria, Idiazabal, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi.

d) Deben descalificarse las bandas estrechas y llanas de fondos de valle, sobre todo las de ribera, e impedir las intervenciones sobre las mismas, que quedarán como bandas de exclusión de asentamientos de desarrollo urbano.

e) Los usos especiales de carácter contaminante o degradante, tales como almacenaje de chatarra al aire libre, cementerio de automóviles, plantas de hormigón y otros de similar impacto, se regularán obligatoriamente en el planeamiento municipal, en base a la normativa sectorial y con criterios de protección de acuíferos, del medio natural y de los paisajes urbano y rural.

f) Los asentamientos de las actividades económicas, se efectuarán en base a proyectos integrados en la estructura relacional, definiendo espacios funcionales de rodadura, aparcamiento, itinerarios peatonales y ciclistas, aceras, arbolado y bordes de río, y cuidando la calidad de diseño y ejecución de edificaciones y urbanización y su relación con el medio ambiente.

g) Las áreas y unidades de planeamiento para actividades económicas procurarán emplazarse en contigüidad con desarrollos existentes, de modo que no den lugar a crecimientos dispersos.

h) Como criterio general, en base a los principios de desarrollo sostenible y la mejor utilización del suelo, el planeamiento contemplará una ocupación edificatoria de varias plantas, siempre que sea compatible con los fines de concretos de las ordenaciones de desarrollo de este PTP acordes con el mismo o salvo que circunstancias de la actividad productiva u otras concretas exijan otro tipo de edificaciones.

***Artículo 40.***– Criterios de localización del Suelo para Actividades Económicas.

1.– En función de la intensidad del desarrollo industrial soportado y/o de la potencialidad que el Modelo atribuye a los ámbitos de desarrollo previstos, el PTP diferencia los municipios del Área Funcional incluyéndolos en las siguientes categorías:

– Municipios de Interés Preferente.

– Municipios de Crecimiento Moderado.

– Municipios de Bajo Desarrollo.

2.– Los Municipios de Interés Preferente son los situados en los principales corredores de comunicación, los que soportan las mayores implantaciones industriales y/o los poseedores de notables potencialidades de desarrollo:

– Zaldibia, Ordizia, Beasain, Lazkao, Olaberria, Idiazabal, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itxaso, Zumarraga, Urretxu y Legazpi.

Udalerrien kategoria honetako esku-hartzeak ondorengo irizpideen araberakoak izango dira:

a) N-1 errepidean zehar eta Zumarraga-Legazpi ardatzean kokatutako udalerri gehienen asetze-maila altua eta garapen berrietarako aukera urriak kontuan hartuta, aipatutako udalerrietan garapenak egun esparru horietan kalifikatuta dauden lurzoruetara mugatzen dira, planaren indarraldiak irauten duen bitartean. Horrela, beraz, gaur egun beteta dauden ehunak hobetzera eta okupatugabeko lurrak behar bezala garatzera bideratuko dira.

b) Bi eskualdeetako burutza-udalerrietan esku hartzeko estrategia eraldaketa- eta berrikuntza-eragiketak egitera zuzenduko da, hirugarren sektoreko jardueretarako lurzoruak lortzeko eta garatzeko helburuarekin.

c) Estrategia horren osagarri, Beasain-Zumarraga korridorean ekonomia-jardueretarako eremu berriak prestatzea proposatzen da.

3.– Neurriko hazkundeko udalerriak, hiriguneeetan integratuta egonda garatzeko aukera garbirik ez duten edo korridore nagusien inguruko eremutan kokatuta dauden tamaina ertaineko udalerriak dira garatzeko aukera garbirik ez duten eta asetasun-maila handia.

– Legorreta, Itsasondo, Arama, Segura eta Zegama.

Udalerri horietan lehendik dauden eremuak egonkortzera eta hobetzera bideratutako politika aplikatzea proposatzen da. Gainera, horien hazkundea gaur egun kalifikatuta daudenetara mugatuko da.

4.– Garapen txikiko udalerriak tamaina eta industria-lurzoruen eta hiri-garapeneko bestelako ekonomia-jardueren garapen txikienak dituztenak dira.

– Altzaga, Gainza, Ataun, Zerain eta Mutiloa.

Udalerri horietan hirigintza-plangintzak hiri-garapeneko ekonomia-jardueretarako lurzoruaren kalifikazioa mugatzea proposatzen da.

Udalerri bakoitzak gehienez 3 ha lurzoru aurreikusi ahal izango ditu, nahikoa harrera-ahalmen dagoenean ingurune naturalean eragin esanguratsurik izan gabe.

***41. artikulua.–*** Ekonomia Jardueretarako Eraldaketa Eragiketak.

1.– Ondorengoak dira Goierriko Eremu funtzionaleko LZParen lurralde-ereduan finkatutako hiri-aldaketa eta -leheneratzeko eragiketek eragindako lurzoruetako proposamenak:

a) Beasain-Ordizia-Lazkao ardatza deituriko esparrua.

Las intervenciones en esta categoría de municipios obedecerán a los siguientes criterios:

a) Dado el grado de saturación y escasa posibilidad de nuevos desarrollos en los municipios situados a lo largo de la N-I y en el eje Zumarraga-Legazpi, en dichos municipios, durante el período de vigencia del PTP, se limitan las actuaciones a los suelos ya calificados en el planeamiento vigente, orientándose los mismos a la mejora de los tejidos ocupados y al correcto desarrollo de los suelo desocupados.

b) En los municipios-cabecera la estrategia de intervención se dirigirá a operaciones de transformación y regeneración tendentes al desarrollo de las actividades terciarias.

c) Complementariamente a dicha estrategia se plantea el desarrollo de nuevas áreas de actividades económicas en el corredor Beasain-Zumarraga.

3.– Los Municipios de Crecimiento Moderado son aquellos de tamaño medio integrados en áreas urbanas que no disponen de opciones claras de desarrollo o en situación periférica con respecto a los principales corredores:

– Legorreta, Itsasondo, Arama, Segura y Zegama.

En estos municipios se propone la aplicación de una política tendente a la consolidación y mejora de las áreas ya existentes y la limitación de su crecimiento a los suelos actualmente calificados.

4.– Los Municipios de Bajo Desarrollo son los de menor tamaño y escasa o nula calificación de suelos industriales.

– Altzaga, Gainza, Ataun, Zerain y Mutiloa.

En estos municipios se propone que el planeamiento urbanístico restrinja la calificación de suelo para actividades económicas a las de carácter urbano.

Cada municipio podrá prever, en cualquier caso, hasta un máximo de 3 Ha de suelo para actividades económicas, cuando exista capacidad de acogida suficiente y no se provoquen impactos significativos sobre el medio natural.

***Artículo 41.–*** Operaciones de transformación para las Actividades Económicas.

1.– Las propuestas en los suelos afectados por las operaciones de transformación y regeneración urbana establecidas en el Modelo Territorial de este PTP del Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri), son las siguientes:

a) Ámbito del llamado vértice Beasain-Ordizia-Lazkao.

35. artikuluaren 1. zenbakian proposatutako epe ertain/luzeko eragiketei dagokie. Horiek batez ere CAFeko instalazioek, errugbi-zelaiak eta horien inguruek okupatutako lurrak dira, Ordizia-Beasainen kokatutakoak eta erabilera mistoetara bideratutakoak, hirugarren sektorekoak barne.

Eragiketa horiekin batera, CAFeko hego-ekialdeko industria-lurzorua antolatzea proposatzen da, Lazkao udal-barrutian. Hori birkalifikatutako pabilioien ordezko izango da.

Izaera estrategikoko eragiketatzat jotzen da, nahiz eta trenbidearen trazadura aldatzearen mendeko izan. Hori dela eta, aipatutako enpresaren jarduerak birmoldatzeko prozesura egokitu beharko dute, konpatibilizazio-planaren bitartez.

Funtsezkoa eta lehentasunezkoa izango da administrazio-erakunde publikoek ekimenean nahastea eta ekimena indartzea, bertan parte hartzea eta, hala badagokio, kasuan kasuko esku-hartzeak sustatzea.

b) Beasaingo geltokiaren hegoaldeko esparrua.

Aprobetxamenduak hobetzea eta dauden erabilerak aldatzea.

Hiri-burutzan izaera mistoko eta hirugarren sektoreko lurzoruaren eskaintza.

c) Castillo hotelaren inguruko esparrua Beasain-Olaberria inguruan.

Hirugarren sektorera bideratutako esparrua antolatzea Castillo hotelaren inguruan, gasolindegiaren eta Beasaingo kiroldegiaren artean.

d) Zumarragako geltokiko salgaietarako bideen esparrua.

Salgaietarako gaur egungo bideak eta horien ingurua hobeto aprobetxatzea eta horiek aldatzea, Zumarraga eta Urretxun, eremu funtzionaleko geltoki intermodal alternatiboa eta merkataritza eta zerbitzuetako bestelako jarduerak ezartzeko helburuarekin.

2.– Artikulu honetako 1.a) eta 1.d) ataletan aipatutako eraldaketa-eragiketak, hau da, Beasain-Ordizia-Lazkao ardatzeko esparruei dagozkienak eta Beasain eta Zumarragako geltokietako bazterbideei dagozkienak esku-hartze estrategikotzat jo dira eta 8.3 eta 9. artikuluetan definitutako antolamendu-ereduaren egiturako osagaiak dira.

3.– Proposamenen garapena kasuan kasuko konpatibilizazio-planetan barne hartutako aurreikuspenen arabera egingo da. LZPan islatu dira grafikoki grafikoen kokapena eta muga zehatzak, orientazio moduan.

Corresponde a las operaciones a medio/largo plazo propuestas en el número 1 del artículo 35 para los suelos mayoritariamente ocupados por las instalaciones de CAF, el campo de Rugby y sus entornos, en Ordizia-Beasain, y destinados a usos Mixtos, incluidos los Terciarios.

Ligada a estas operaciones resulta la propuesta de ordenación de suelo industrial del sureste de CAF, en el término municipal de Lazkao, en sustitución de los pabellones recalificados.

Esta operación se considera de carácter estratégico, si bien dependiente de la modificación de la traza ferroviaria, debiendo además acomodarse al proceso de remodelación de las actividades de la mencionada empresa mediante el necesario Plan de Compatibilización.

La implicación de los entes administrativos públicos en la iniciativa, impulso, participación y, en su caso, promoción de las diferentes intervenciones, se considera primordial para el desarrollo de este ámbito.

b) Ámbito del entorno sur de la estación de Beasain.

Mejora de los aprovechamientos y transformación de los usos existentes.

Oferta de suelo carácter mixto y terciario en la ciudad-cabecera.

c) Ámbito del entorno del Hostal Castillo en Beasain-Olaberria.

Se plantea crear un ámbito de carácter terciario entre la actual gasolinera y el Polideportivo de Beasain.

d) Ámbito de la playa de vías de la estación de Zumarraga.

Mejora de los aprovechamientos y transformación de las actuales playas de vías de mercancías y su entorno, en Zumarraga y Urretxu, con la finalidad de implantar una estación intermodal alternativa del Área Funcional y otras actividades comerciales y de servicios.

2.– Las operaciones de transformación a que se refieren los apartados 1.a) y 1.d) de este artículo, es decir, las correspondientes a los ámbitos del vértice Beasain-Ordizia-Lazkao y a la playa de vías de las estaciones de Beasain y Zumarraga se consideran intervenciones estratégicas y componentes de la Estructura Territorial del Modelo de ordenación, definida en los artículos 8.3 y 9.

3.– El desarrollo de las propuestas se llevarán a cabo, en su caso, conforme a las previsiones contenidas en los correspondientes Planes de Compatibilización, teniendo aquéllas, entretanto, en lo referente a la ubicación y límites concretos que se grafían en el PTP, un carácter orientativo.

***42. artikulua.–*** Ekonomia Jardueretarako Garapen Berriko Jarduerak.

1.– Lurzoruen edukiera-ahalmena eta lurralde-egituran duten inplikazio-maila eta LZP honetako garapen-estrategia aintzat hartuta, garapen berrirako honako eremu eta jarduerak aurreikusi dira:

a). Beasain-Zumarraga korridorea deiturikoan «izaera estrategikokotzat» jotako hiru eremu ezartzea proposatzen da. Eremu horietako bat kudeaketa publikoko formulen bitartez garatuko da:

a.1.– Ekonomia-jardueretarako lurzoru gisa sailkatzeko proposatu dira Santa Lutziako errekastoaren ibarretakoak, Ezkioko azpiestazioaren eta Alegiko herrigunearen artean.

a.2.– Ezkio-Itsaso eta Gabiria udalerrietan.

Santa Luzia errekaren ertz banatan, aurrekotik ibaian gora, Santa Luzia - Anduaga herrigunearen inguruan eta trenbide-sare berrian aurreikusitako geltokitik hurbil.

a.3.– Ezkio-Itsaso udalerrian.

Igartzola ibarrari dagokion esparrua, trenbide-sare berriak Ezkio-Itsaso udalerrian aurreikuspenen arabera izango duen geltokiaren inguruan.

b) Halaber, Ormaiztegi eta Zumarragako udalerrietan izaera «ez-estrategikoa» duten eremu bana aurreikusi dira.

b.1.– Ormaiztegi udalerrian: Telleriarteren tokiari dagokion esparrua.

b.2.– Zumarraga udalerrian: Oiaun eremua.

c) Gainerako udalerrietan ezarpen berriak egin nahi badira, LZP honekin bateragarria den udal-plangintzak zehaztapenak jarraituko dira, betiere garapen txikiko udalerriei dagokienez 40.4 artikuluan xedatzen duenari kalterik eragin gabe.

2.– Artikulu honetako 1. ataletan aipatutako eraldaketa-eragiketak, hau da, Beasain-Ordizia-Lazkao ardatzeko esparruei dagozkienak eta Beasain eta Zumarragako geltokietako bazterbideei dagozkienak esku-hartze estrategikotzat jo dira eta 8.3 eta 9. artikuluetan definitutako antolamendu-ereduaren egiturako osagaiak dira.

3.– Proposamenen garapena kasuan kasuko konpatibilizazio-planetan barne hartutako aurreikuspenen arabera egingo da. LZPan islatu dira grafikoki grafikoen kokapena eta muga zehatzak, orientazio moduan.

***Artículo 42.–*** Actuaciones de nuevo desarrollo para las Actividades Económicas.

1.– En base a la capacidad de acogida de los suelos y en función de su grado de implicación en la estructura territorial y la estrategia de desarrollo de este PTP, se establecen los siguientes ámbitos y actuaciones de nuevo desarrollo:

a) En el llamado Corredor Beasain-Zumarraga, se propone la implantación de tres áreas consideradas de «carácter estratégico», una de las cuales será desarrollada mediante fórmulas de gestión pública:

a.1.– Ámbito correspondiente a las vegas del arroyo Santa Lutzia, comprendido entre la subestación eléctrica de Ezkio y el casco de Alegi, en los municipios de Ezkio-Itsaso y Gabiria.

a.2.– En el municipio de Ezkio-Itsaso-Gabiria.

Emplazada en los márgenes del arroyo Santa Lutzia, aguas arriba del anterior, en el entorno del núcleo Santa Lutzia - Anduaga, y próxima a la prevista estación de la nueva red ferroviaria.

a.3.– En el municipio de Ezkio-Itsaso.

Ámbito correspondiente a la parte baja de la vaguada de Igartzola y entorno próximo de la prevista estación de la nueva red ferroviaria.

b) Además se contemplan sendas áreas de carácter «no estratégico» en los municipios de Ormaiztegi y Zumarraga.

b.1.– En el municipio de Ormaiztegi: Ámbito correspondiente al lugar de Telleriarte.

b.2.– En el municipio de Zumarraga: Área de Oiaun.

c) En el resto de los municipios las nuevas implantaciones se efectuarán en base a las determinaciones del planeamiento municipal compatible con este PTP, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 40.4 para los municipios de bajo desarrollo.

2.– Las operaciones de transformación a que se refiere el apartado 1 de este artículo, es decir, las correspondientes a los tres ámbitos del «corredor Beasain-Zumarraga», se consideran intervenciones estratégicas y componentes de la Estructura Territorial del Modelo de ordenación, definida en los artículos 8.3 y 9.

3.– El desarrollo de las propuestas se llevarán a cabo, en su caso, conforme a las previsiones contenidas en los correspondientes Planes de Compatibilización, teniendo aquéllas, entretanto, en lo referente a la ubicación y límites concretos que se grafían en el PTP, un carácter orientativo.

LAUGARREN SEKZIOA
EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

***43. artikulua.***– Ekipamendu eta Espazio Libreetara Bideratutako Lurzorua Antolatzeko Irizpideak eta Helburuak.

1.– Goierriko Eremu funtzionalean hiri-izaerako udalaz gaindiko ekipamenduetara bideratutako lurzoruaren antolamendua ondorengo irizpideak aintzat hartuta gauzatuko da:

a) Lurralde-ereduak proposatutako udalaz gaindiko intereseko ekipamenduak aipatutako ereduaren egitura orokorrean txertatzen dira eta ekipamendu horien garapena, sistema hierarkizatu bat sortzera, hirien osagarri izango dena eta landaguneak aktiboki integratuko dituena, bideratuko da.

b) Berrekipamenduek eremua egituratzeko bete dezaketen funtzio garrantzitsua kontuan hartuta, berrekipamenduekin batera hiri-birkualifikazioko, burutza-hirien maila sustatzeko eta hirien sistemako herriguneen integrazio formal eta funtzionala bideratzeko eragiketak egingo dira.

c) Landa-eremuetako eta natur inguruneko ekipamenduak lehen horiek garatzeko estrategia orokorraren baitan txertatuko dira.

d) Arrazionaltasuna, hierarkizazioa, osagarritasuna eta, kasu jakin batzuetan, zentraltasun eta kualifikazio espaziala bezalako irizpideak izango dira gailen ekipamenduen sistema antolatzeko, hiri-ingurunean nahiz natur ingurunean.

e) Esku-hartzeek ikuspegi globala izango dute, LZP honetako lurralde-ereduan proposatutako bestelako proposamenen eragin sinergikoak sortzeko helburuarekin.

2.– LZP honetako lurralde-ereduak, oro har, lehendik dauden udalaz gaindiko ekipamenduak kontsolidatzen ditu eta zuzkidurak handitzeko eta berriak ezartzeko beharrezko diren esku-hartzeak proposatzen ditu, lurraldearen inguruko informazio eta azterketatik eratorritako diagnostikoei jarraiki. Horiek ondorengo artikuluan zerrendatuko ditugu.

3.– Instalazio berriak hirugarren sektoreko gabeziak konpontzera bideratu behar dira. Bide horretatik, funtsezko izango dira ondoko ekipamenduak: negozio-zentroak, enpresetarako zerbitzuak, merkataritzako ekipamenduak, turismo eta aisiako ekipamenduak, gizarte-ekipamendua eta ekipamendu balioanitzak, kualitatiboki eraiki nahi den hiriaren mailarekin bat datozenak.

4.– Turismoaren sektoreari begira, honakoak proposatzen ditu LZPak:

– Hotelen eskaintza zabaltzea eta espezializatzea.

SECCIÓN CUARTA
DE LOS EQUIPAMIENTOS Y ESPACIOS LIBRES

***Artículo 43.***– Criterios y objetivos de la Ordenación del Suelo destinado a Equipamientos y Espacios Libres.

1.– La ordenación del suelo destinado a equipamientos supramunicipales de carácter urbano en el Área Funcional Beasain-Zumarraga (Goierri) se llevará a cabo en base a las siguientes consideraciones:

a) Los equipamientos de interés supramunicipal propuestos en el Modelo Territorial se insertan en la estructura general del mismo y se desarrollarán de acuerdo con los objetivos de creación de un sistema jerarquizado y complementario de ciudades en el que se integren activamente los núcleos rurales.

b) Dado el papel estructurante que pueden asumir los reequipamientos irán ligados a operaciones de recualificación urbana, potenciación del rango de las ciudades-cabecera y de integración formal y funcional de los núcleos urbanos del sistema de ciudades.

c) Los equipamientos de las áreas rurales y del medio natural se integrarán dentro de una estrategia general de desarrollo de las primeras.

d) Los criterios de racionalidad, jerarquización, complementariedad, interrelación y, en determinados casos, centralidad y cualificación espacial, deben presidir la ordenación del Sistema de Equipamientos tanto del medio urbano como el medio natural.

e) Las intervenciones se efectuarán desde una óptica global al objeto de conseguir efectos sinérgicos con otras acciones propuestas en el Modelo Territorial de este PTP.

2.– El Modelo Territorial de este PTP consolida, en general, los equipamientos de carácter supramunicipal existentes, proponiendo las necesarias intervenciones de ampliación e implantación de nuevas dotaciones, de acuerdo con los diagnósticos derivados de la información y análisis territorial, cuya relación se detalla en el artículo siguiente.

3.– Las implantaciones de nueva creación deben orientarse a la resolución de las carencias de tipo terciario, planteándose como preferentes los equipamientos de Centros de Negocios, Servicios a las Empresas, Equipamientos de Turismo y Ocio, Equipamiento Social y Equipamientos Polivalentes y a la creación de equipamientos cualitativamente acordes con el rango de la ciudad que se pretende construir.

4.– En relación al sector turístico se propone desde este PTP:

– La ampliación y especialización de la oferta hotelera.

– Eskualdeko oinezkoentzako ibilbide berriak sortzea eta lehendik daudenen egoera hobetzea.

– Natur inguruneko aisialdirako eremuak eta atsedenerako lekuak handitzea.

– Natur ingurunean kokatutako herriguneak eta landaguneak antolatzea eta sustatzea.

– EF osoa barne hartuko duen Turismoaren Garapenerako Plan bat lantzea.

5.– Merkataritzaren sektoreari dagokionez, zentraltasun berriko esparruak garatzeko proposamenez gain, gaur egungo eremu zentralak kontsolidatzea proposatzen da, gune eta herrigune historikoak birgaitzeko estrategiekin koordinatuz, merkataritza indarberritzeko planen bidez.

Ekipamendu handien kokapena eta tamaina arautzeko, aintzat hartuko da Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sustatzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LAPeko edukiekin bateragarri egiteko irizpidea.

***44. artikulua.***– Ekipamendu eta Espazio Libreen Garapen Berrietarako Lehentasunezko Eremuak.

Oro har ereduak hiri-ekipamenduak eta natur inguruneko ekipamenduak bereizten ditu. Batzuen zein besteen inguruko proposamenak 04 planoan bildu ditugu, udalaz gaindiko ekipamendu eta espazio libreen sistema izenekoan, hain zuzen ere. Horiek ondorengo ataletan bilduko ditugunak dira.

1.– Hiri ekipamenduak:

a) Hezkuntza-ekipamendua:

– Gaur egun ekoizpen-ekimen berrietara lotutako prestakuntza-zentroak eta I+G zentroak zabaldu, sustatu eta hobetu nahi dira.

– Horrezaz gain, Goierriko Lanbide Eskolaren inguruan zuzkidura-esparru bat gordetzea proposatzen du (horri lotutako hirugarren sektoreko erabilerak hartuko ditu barne).

b) Kirol-ekipamendua:

– Ekipamendu horiek berrantolatzea eta indarberritzea proposatzen da, horien arteko osagarritasun handiagoa lortzeko.

c) Osasun- eta laguntza-ekipamendua:

– Hirugarren adinekoentzako zuzkidurak zabaltzea proposatzen da. Horretarako zerbitzuen kokapena arloko eta/edo udaletako plangintzen esku uzten da.

d) Zerbitzu zibiko eta administratiboko ekipamenduak:

– LZP honek barruti judizial berria, eremu funtzionala barne hartuko duena, sortzea proposatzen

– La creación de nuevos itinerarios y recorridos peatonales de alcance comarcal y la mejora de las condiciones de los existentes.

– La ampliación de las áreas recreativas y lugares de esparcimiento en el medio natural.

– La ordenación y potenciación de los núcleos urbanos y rurales enclavados en el medio natural.

– La elaboración para el conjunto del AF de un Plan de Desarrollo Turístico.

5.– En relación al sector comercial, además de las propuestas ligadas al desarrollo de los ámbitos de nueva centralidad, se propone la consolidación de las actuales áreas centrales coordinadas con las estrategias de rehabilitación de los núcleos y de los Cascos Históricos, mediante Planes de Revitalización Comercial.

Para la regulación de la localización y dimensionamiento de Grandes Equipamientos se atenderá al criterio de compatibilización de los contenidos del PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales con los de este PTP.

***Artículo 44.***– Actuaciones preferentes de Nuevo Desarrollo de Equipamientos y Espacios Libres.

Con carácter general el Modelo distingue entre equipamientos de carácter urbano y equipamientos en el medio natural, quedando recogidas las propuestas de unos y otros en el Plano 04, denominado Sistema de Equipamientos y Espacios Libres Supramunicipales, siendo su relación la contenida en los números siguientes.

1.– Equipamientos de carácter urbano:

a) Equipamiento Educativo:

– Ampliación, impulso y mejora de los actuales centros de formación y de I+D vinculados a las nuevas iniciativas productivas.

– Reserva de un ámbito de carácter dotacional incluyendo usos terciarios ligados al mismo, en el entorno de la Escuela Profesional del Goierri.

b) Equipamiento Deportivo:

– Reorganización y revitalización de dichos equipamientos, de cara a lograr una mejor complementariedad entre ellos.

c) Equipamiento Sanitario y Asistencial:

– Ampliación de las dotaciones de la tercera edad, mediante servicios cuya localización se remite a los planeamientos sectorial y/o municipal.

d) Equipamiento de Servicio Cívico-Administrativo:

– Propuesta de creación de un nuevo Partido Judicial que abarque el Área Funcional, cuyo

da. Horren kokalekurik onena Beasain-Ordizia-Lazkao ardatza deiturikoa litzateke.

e) Kultura eta aisialdiko ekipamendua:

– LZP honek udalaz gaindiko izaera eta eremu funtzionalaren maila izango duen kulturgunea sortzea proposatzen da. Horren kokalekurik onena Beasain-Ordizia-Lazkao ardatza deiturikoa litzateke.

f) Merkataritzako ekipamendua:

– Urretxu-Zumarragarako eta Beasain-Ordiziarako merkataritza indarberritzeko planak prestatzea proposatzen da.

g) Garraiorako ekipamenduak:

– Horien artean ditugu errepide- eta trenbide-sistemei lotutako ekipamenduak, hala nola, garraio-zentroak, geltokiak, zerbitzu-eremuak, plataforma intermodalak, garraio astunerako gomendatutako aparkalekuak eta salgaien truke-zentroak. Horien inguruko proposamenak LZP honen IV. kapituluan ageri dira.

h) Hiri-inguruko parkeen zuzkidurak:

– Antigua-Beloki eta Argixao-Zugarramurdi (Zumarraga), Santa Barbara (Urretxu) eta Urtatza (Legazpi) parkeak.

i) Ingurune fisikoarekin zerikusia duten bestelako zuzkidurak:

– Berrekipamenduko eragiketa bereziak proposatzen dira eremu funtzionaleko «lurralderako sarreragune» gisa kategorizatutako udalerrietan, hots, Zaldibia, Ataungo San Martin, Segura eta Zegaman.

2.– Landaguneetako eta natur inguruneko ekipamenduak eta azpiegiturak:

Aisialdiko eremuak eta ibilbideen ingurumen-sarea dira landaguneen lurralde-berrekipamendurako proposamenaren funtsezko elementuak.

a) Aisialdi eta atsedenerako eremuak.

Ezaugarriak kontuan hartuta, ondorengo oinarrizko tipologiak bereizten dira:

– Eskualdeko atseden-eremuak.

Herrietatik hurbil daudenak eta horietako zuzkiduren osagarri direnak:

Oianguko atseden-eremua, Lazkaomendin. (Oiangu parkearen zabalpena).

Brinkola-Telleriarte eremua (Mirandaolako kultur multzoan sartutakoa)

– Aisialdi eta atsedenerako eremuak.

Erakargarritasun paisajistikoa duten leku berezietan:

Altzagarate-Gaintza, Usurbe, Kizkitza, Zamiño-Izazpi, Irimo, Arrolamendi-Gorostiaga, Otaño-

emplazamiento más idóneo sería el ámbito del llamado vértice Beasain-Ordizia-Lazkao.

e) Equipamiento de Cultura y Ocio:

– Implantación de un Centro Cultural de carácter supramunicipal y del rango de Área Funcional, cuyo emplazamiento más idóneo sería el ámbito del llamado vértice Beasain-Ordizia-Lazkao.

f) Equipamiento Comercial:

– Elaboración de Planes de Revitalización Comercial para Urretxu-Zumarraga y Beasain-Ordizia.

g) Equipamientos del Transporte:

– Se incluyen en este concepto los equipamientos ligados a los Sistemas Viario y Ferroviario, tales como los Centros de Transporte, las Estaciones, las Áreas de Servicio, las Plataformas Intermodales, los Aparcamientos Disuasorios de transporte pesado y los Intercambiadores de Mercancías, las propuestas de los cuales figuran en el Capítulo IV de estas Normas de Ordenación.

h) Dotaciones de Parques Periurbanos:

– Parques de Antigua-Beloki y Argixao-Zugarramurdi (Zumarraga), Santa Bárbara (Urretxu) y Urtatza (Legazpi).

i) Otras Dotaciones:

– Operaciones especiales de reequipamiento en los municipios categorizados como «núcleos de acceso al territorio» del Área Funcional: Zaldibia, San Martín de Ataun, Segura y Zegama.

2.– Equipamientos e infraestructuras de las áreas rurales y en el medio natural:

Las Áreas Recreativas y la Red de Recorridos Ambientales constituyen los elementos básicos de la propuesta de reequipamiento territorial en los ámbitos rurales.

a) Áreas Recreativas y de Esparcimiento.

En función de sus características se plantean las siguientes tipologías básicas:

– Áreas Recreativas de carácter comarcal.

Inmediatas a las poblaciones y complementarias de sus dotaciones:

Área recreativa de Oiangu en Lazkaomendi (Ampliación del parque de Oiangu).

Área de Brinkola-Telleriarte (Integración del conjunto cultural de Mirandaola).

– Áreas de Esparcimiento:

En puntos singulares con atractivo paisajístico:

Áreas de Altzagarate-Gaintza, Usurbe, Kiskitza, Zamiño-Izazpi, Irimo, Arrolamendi-Gorostiaga,

Arranoaitz, Mariñamendi-Aitzleor, Arantzamendi eta Exminesa inguruko (hondakinen baltsa kendu, poluzioa kendu eta leheneratuta) eremuak.

– Parke naturalak, Natura 2000 Sarea eta interes naturalistikoko espazioak:

Aralarko parkea.

Aizkorri-Aratz parkea.

Murumendi.

Gorostiaga.

Aralar-Aizkorri korridore ekologikoa, Lizarrusti eta Otzaurte artean.

b) Ibilbideen ingurumen-sarea:

Biztanleriaren gune nagusiak lurralderako sarreraguneekin eta proposatutako atseden-eremuekin lotzen dituzten ibilbideen sistema integratua da.

– Tokiko sarbide-sare nagusiko oinezkoentzako pasealekuak eta bidegorriak.

– Naturaren, ondarearen eta turismoaren inguruko interesa duten elementuen arteko ibilaldi bigunak.

– Oinezkoentzako bestelako ibilbide eta zirkuituak.

c) Hainbat ekipamendu:

Lurraldeko gune berezietako azpiegitura bigunak (aparkalekuak, mahaiak, eserlekuak, janaria prestatzeko elementuak, ura, komunak, baita kanpatzeko tokiak ere): Lizarrusti, Otzaurte, Mandubia, Udana, Etxegarate eta Brinkola.

## VI. KAPITULUA
## ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK: ESKU HARTZE ESTRATEGIKOAK

### LEHENENGO SEKZIOA
### ESKU HARTZE ESTRATEGIKOEN ERREGIMEN OROKORRA

***45. artikulua.–*** Esku Hartze Estrategikoak.

1.– 10.2 artikuluko definizioaren arabera, ondoren adierazitako antolamendu- eta jarduera-proposamenak jotzen dira esku-hartze estrategikotzat:

a) Ingurune fisikoari dagozkionak.

1) Babestu, hobetu eta/edo berreskuratzeko eremu berritzat definitutako esparruak edo mugatzea, gaur egungo Naturgune Babestuak osatzeko, eta bertako jarduerak dagokien kategorizazioaren arabera arautzea.

2) 2.13 artikuluan barne hartutako jarduera-proposamenetan adierazitako planak garatzea, dagozkien programa eta ekintzekin batera.

Otaño-Arranoaitz, Mariñamendi-Aitzleor, Arantzamendi, Entorno de Exminesa, éste con la eliminación, descontaminación y regeneración de la balsa de residuos.

– Parques Naturales, Red Natura 2000 y Espacios de Interés Naturalístico:

Parque de Aralar.

Parque Aizkorri Aratz.

Murumendi.

Gorostiaga.

Corredor Aralar-Aizkorri, entre Lizarrusti y Otzaurte.

b) Red de Recorridos Ambientales:

Constituye un sistema integrado de itinerarios de conexión de los principales núcleos de población, con los Núcleos de Acceso al Territorio y con las Áreas Recreativas propuestas.

– Paseos peatonales y ciclistas («bidegorriak») en la red principal de accesibilidad local.

– Rutas blandas entre elementos de interés natural, patrimonial y turístico.

– Otros itinerarios y circuitos peatonales.

c) Otros Equipamientos:

Infraestructuras blandas (aparcamientos, mesas, bancos, elementos para cocinar, agua, sanitarios e incluso acampada) en puntos singulares del territorio: Lizarrusti, Otzaurte, Mandubia, Udana, Etxegarate y Brinkola.

## CAPITULO VI
## BASES Y CONTENIDOS SUSTANCIALES DE LA ORDENACIÓN: LAS INTERVENCIONES ESTRATÉGICAS

### SECCIÓN PRIMERA
### RÉGIMEN GENERAL DE LAS INTERVENCIONES ESTRATÉGICAS

***Artículo 45.–*** Intervenciones Estratégicas.

1.– Se consideran Intervenciones Estratégicas, de acuerdo con la definición contenida en el artículo 10.2, las siguientes propuestas de ordenación y actuación:

a) Medio Físico.

1) Delimitación de los ámbitos definidos como nuevas áreas a proteger, mejorar y/o recuperar que completen los actuales espacios Naturales Protegidos y la regulación de las actividades en los mismos conforme a su categorización.

2) Elaboración, con sus correspondientes programas y acciones que los desarrollen, de los planes señalados en las propuestas de actuación contenidas en el artículo 25.

b) Zentraltasunak sustatzeko eragiketei dagozkienak.

1) Beasain-Ordizia-Lazkao ardatza antolatzea.

Proposamen horren antolamendu-helburua gaur egungo hiri-aglomerazioko guneen egitura- eta forma-integrazio egokia lortzea da, horrek Gipuzkoako eta EAEko hirien sisteman duten maila igotzea eta horrekin bat etorriko diren hiri-funtzioak beretzea ahalbidetuko baitie.

Eragiketa horrek trenbidearen trazadura aldatzearekin du zerikusia, LZP honetan aldaketa horiek egiteko adierazitako epeei dagokienez.

2) Beasain-Zumarraga korridorea antolatzea.

Proposamen honen antolamendu-helburua bizitegi-hazkundeetarako eta ekonomia-jardueretarako eremuetarako garapen potentzialeko espazioa sortzea da.

Horretarako bide izango da bi burutzen arteko espazio funtzionala Ezkion aurreikusitako geltokiaren ingurunearekin zentraltasun estrategikoko eremu gisa egituratuko duen azpiegitura-euskarri zentral eta berrituan zehar hiri-espazio bat lortzera bideratutako eragiketa integratuen multzoa.

c) Harremanetarako sistemari dagozkionak.

1) Garapen-korridore nagusiak burutzea eta tokiko sarbide-sare nagusiarekiko loturen hobekuntza puntualak.

Kanpoko sarbide-sare nagusikoak direnak hain zuzen ere: N-1 autobia eta Beasain-Durango korridorea, bitan banatutako bide gisa planteatutakoak.

Bestalde, honakoak burutuko diren jarduera puntualak:

– N-I errepidetik Ordizia, Lazkao eta Beasaingo herriguneetara iristeko sarbide-sistema aldatzea. Hori Ordiziako hegoaldeko lotunea hobetuz egingo da. Horretatik abiatuta egingo dira ondoren Beasain eta Lazkaorako loturak, baita errugbi-zelairako eta Ordizia erdialdeko eremuetarakoak ere.

– Beasain-Zumarraga korridorearen eta GI-632 errepidearen arteko bide-lotura berria Santa Luzia-Anduaga herrigunearen parean edo horren inguruan egingo da, trenbide-sare berriak Ezkio-Itsason izango duen geltokiaren ondoan, modu horretan eremuaren zentraltasuna indartzeko.

2) Tokiko sarbide-sare nagusiko komunikaziorako bideak hiri-jarraitasuneko ardatz bihurtzea.

Proposamen honen antolamendu-helburua burutzen eta horietatik hurbilen dauden herri-guneen arteko loturak indartzea da, horiek hiri-zentraltasuneko ardatz edo hiriarteko artikulazioko

b) De la Potenciación de Centralidades.

1) Ordenación del vértice Beasain-Ordizia-Lazkao.

El objetivo de ordenación de esta propuesta es el logro de una correcta integración estructural y formal entre los núcleos de la actual aglomeración urbana, con el consecuente aumento de rango en el sistema de ciudades de Gipuzkoa y la CAPV de tal modo que le permita dotarse de funciones urbanas acordes con el mismo.

Esta operación está ligada al cambio de trazado del Ferrocarril, en las condiciones señaladas para dichas transformaciones en este PTP.

2) La ordenación del Corredor Beasain-Zumarraga.

El objetivo de ordenación de esta propuesta es la creación de un espacio de potencial desarrollo para crecimientos residenciales, dotacionales y áreas de actividades económicas.

